



MODA

2025

ttipi-ttapa | 877 zk. | 2025-05-08





Bilduma *Berrria*

% -10



bazkide txartelarekin

MARKA BERRIETAN

**Hugo Boss, K-Way, Quiksilver, Roxy,
Hurley, Silbon, Salty Crew, DC, FitFlop,
Karl Lagerfeld, Gola, No Name,
Les Tropeziennes**



PEIO
MODE

ES. +34 948 625 130

FR. +33 972 10 40 20

www.venta-peio.com

 @venta.peio

 peioventa



MODA GEHIGARRIA



Kolore egokiak aukeratzea da gakoa

Kolore, kolore eta gustu guztiak, denontzat, denontzat ez dira berdinak. Hala zioen Mixel Ducau eta Zaldibobok kantatzen zuten kantu ezagunak, eta badirudi arrazoi faltarik ez zutela.

Kolorea aztertzen duen zientzia da kolorimetria, eta uste baino garrantzitsuagoa da janzterako orduan kontuan hartzea. Azalaren, ilearen eta begien kolorea aztertuta, bakoitzari ongi gelditzen zaizkion koloreak lortzen dira kolorimetria azterketa bat eginez gero. Tonu horiek izanen dira gure hobekien gelditzen zaizkigunak, eta, beraz, tonu horietako arropak, osagarriak eta makillajeak edertu egingen gaituzte. Uste baino garrantzitsuagoa da, beraz, janzterako orduan koloreen aukeraketa egokia egitea.

Kolorimetria azterketa bat egiteko, egokiena adituengana jotzea da, be-

raiek baitira hobekien egingen dutenak. Hainbat tonutako oihalak jarrita egingen dira kolorimetria probak, eta norberak berehala nabaritutako du zein diren hobekien gelditzen zaizkion tonuak eta koloreak.

Hala ere, oinarritzko kolorimetria bat egin dezakegu etxean. Horretarako, aski izanen da oihal zati laranja bat eta arrosa bat hartzea, eta irudian agertzen den bezala, lepo azpian jartzea. Horretarako garrantzitsua da azalean inolako makillajerik ez izatea. Kolore laranja edertzen bazaitu kolore beroak dira hobekien geldituko zaizkizunak, kontrara, arrosa bada hobekien gelditzen zaizuna, kolore hotzak. Urdinetik eratorritako koloreak dira kolore hotzak eta, gorritik eta horitik eratorritakoak, aldiz, beroak.

Kontuan hartu, teoria berak balio duela ilearen kolorea eta makillajearena erabakitzeko orduan.



· Emakume eta gizonentzako arropa eta osagarriak ·

maite.moda
 Maite Moda
 948 450 727

Amezitia zeharkarrika, 5 DONEZTEBE

Udaberriko eta udako tendentzia nagusiak



Udaberri sasoian murgilduta gaude, eta segidan ailegatuko da garaia neguko arropak eta oinetakoak armairuan gorde eta udakoak ateratzeko. Sasoi bakoitzak dauzka bere modak eta aurtengo udaberriko eta udako tendentzia nagusiak bildu ditu gehigarrian.

Tendentziak arropetan

Iaz bezala aurtien ere, *sport* edo kirol estiloko arropa izanen da udako moda nagusienetako bat eta *leggings* estiloko galtzak izanen dira horren adierazgarri. Hala ere, kirol estiloko arropa horrekin *look* eleganteak egiteko aukera izanen da. Horrekin batera, mozketa asimetrikoak dituzten jantziak eta globo estiloko manga handiak ere izanen dira aurtengo tendentzie-tako batzuk.

Kakorratzez egindako lanak nagusi izanen dira udako denboraldian, baita galtza motz-motzak ere. Horiez gain, galtzei dagokionez, guztiz osatu gabeko galtzak, hanketako bat falta dutenak, ikusten ahalko dira, eta bermuda zabalak ere bai.

Iazko tendentziari eutsi, eta *ballet-core* estiloko arropa ere ikusten ahalko da dendetan. Nobedadea ez bada ere, oraindik modan segituko dute aldakatik behera jantzen diren gonek eta galtzek. Koloreei dagokionez, pastel tonuak ikusten ahalko dira, eta

bereziki nabarmenduko da hori kolorea.

Haurrak eroso eta koloretsu

Haurrei dagokionez, aitzineko urteetako tendentziekin segituz, guztiaren gainetik erosoak diren arropak izanen dira gehien ikusiko ditugunak. Koloreei dagokionez, pastel tonuetako arropak gailenduko dira, eta baita lur koloreak ere. Gainera, geroz eta ohikoagoak dira material ekologikoz eta jasangarritz egindako arropak aurkitzea haurrentzat. Materialei, dagokionez, kotoia eta lihoa izanen dira haurrentzako arropetan gehien nabarmenduko direnak.

Eta oinetakoetan zer?

Oinetakoei dagokionez, zalantzarik gabe gehien ikusiko direnak *bailarina* edo dantzari oinetakoak izanen dira, kolore eta testura denetan. Transparentziak dituzten oinetakoak ere bogan egonen dira eta baita mokasinak ere, kolore eta forma diferentetakoak. Sandalietan, berriz, txankletak izanen dira gehien ikusiko ditugunak. Haurren oinetakoei dagokionez, arropen gisan, erosotasuna izanen da helburua.

Tendentziak tendentzia, inportanteena da arroparekin eta oinetakoe-kin eroso eta gustura sentitzea, eta beharrezkoa bakarrik erostea.

LARUNBAT
ARRATSALDETAN
IREKIA

10%
FAMILIA UGARIENAKO
DESCONTU

•1922•
Virgilio
CALZADOS OINETAKOAK

Santiago 36
31700 Elizondo (Na)
948 580 209
www.calzadosvirgilio.com

100 urte
años
1922-2022

BIOK

FASHION



**Berritu zure
armairua gure
dendetan!**

GIZON ETA EMAKUMEENTZAKO MODA

*...hurbildu eta deskontuak
aurkituko dituzu*



ZAPATAK



OSAGARRIAK



BITXIAK

BIOK

EXPERIENTIAL SHOPPING



Deskontuak lortu
eta pilatu puntuak
zure erosketa
guztietan.



[ventabiok.com](https://www.ventabiok.com)

IBARDIN - DANTXARINEA - VALCARLOS